

URAK Andoaingo Ziako erreken uholdeetatik babesteko proiektuaren erredakzioa lizitatu du

- Antonio Aiz URako zuzendari nagusiak eta Mari Jose Izagirre Andoaingo Zerbitzu zinegotziak nabarmendu dutenez, "Ziakoren gaitasun hidraulikoa handitzearekin, Andoaingo eskaera historiko bati erantzuten zaio, eta Ama Kandida eta Bazkardoko etorkizuneko hirigintza-garapenak desblokeatzen ditugu"
- Ziakon jarduketa bikoitza aurreikusten da, bata uholdeei aurre egiteko, eta bestea saneamenduari buruzkoa. Horretarako, URAK proiektu berri bat lizitatuko du datozen asteetan, erreka isuriak jasotzeko eta Oria Erdiko hodi-biltzailearekin lotzeko

URA-Uraren Euskal Agentziak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikiak, lizitatu berri du Andoaingo Ziako erreken uholdeetatik babesteko proiektuaren erredakzioa. Lizitazioaren aurrekontua 254.100 €-koa da, gehi BEZa, eta gauzatzeko epea 8 hilabetekoa.

Ziako erreka, Errekabeltz ere deitua, Oria ibaiaren eskuinaldeko ibaiadar bat da, eta harekin bat egiten du Andoainen, Bazkardo auzoan: erreken hiri-tarte ia osoa estalita dago, Urnietatik gertu dauden industrialdeetan izan ezik.

Estaldura hori egiteko, garai batean errekastoa gurutzatzen zuten zubi zaharrak hartu ziren oinarri, eta bere garaian ibilguari eman zitzaion zabalera ez nahikoak hainbat uholde eragin ditu iraganean, batez ere Bazkardon, Kaletxikin eta Berrozpen.

Zerbitzu-kontratu honen helburua proiektu bat osatzea da, Andoaingo gune urbanoan Ziako erreken uholdeetatik babesteko egin beharreko jarduketak erabat definituko dituen, kontuan hartuta indarrean dagoen araudia eta Plan Hidrologikoaren eskakizunak, bai eta bestelako baldintza guztiak ere.

Orain lizitatuko den proiektuak identifikatuko du eremu horretako segurtasuna areagotzeko soluzio hidraulikorik onuragarriena. Horretarako, Ziako erreken **100 urteko errepikatze-denborako etorraldietarako** Kaletxiki auzoa (Berrozpe), Ama Kandida etorbidea eta Bazkardo auzoa babestu ahal izateko dauden aukerak baloratu eta aztertuko dira.

Aukera horien artean, Andoaingo hiri-eremu osoan (Berrozpe auzoa eta Ama Kandida etorbidea) **erreken gaur egungo estaldura erabat kentzea** eta haren trazadura egokitzea aurreikusten da, ahal den neurrian Ama Kandida etorbideetik igaroko den **aire zabaleko irtenbide berria garatuz**.

Ziako errekaen eta Oria ibaiaren arteko elkargunearen funtzionamendua hobetzeko hainbat irtenbide aztertu beharko dira, Bazkardo auzoaren uholde-arriskua murrizteko. Alternatiba guztiek bateragarriak izan beharko dute Andoaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrarekin, eta A-15 autobidea eta N1 errepidearen oztopoa gainditzeko irtenbiderik onena identifikatuko da.

URA agentzia eta Andoaingo Udala elkarlanean ari dira udalerriko erronka hidraulikoei aurre egiteko. Antonio Aiz URAko zuzendari nagusiak eta Mari Jose Izagirre Andoaingo Udaleko Zerbitzu zinegotziak azpimarratu dutenez, "Ziako errekaen gaitasun hidraulikoa handitzearekin batera, Andoainen eskaera historiko bati erantzuten zaio, eta Ama Kandida eta Bazkardoren etorkizuneko hirigintza-garapenak desblokeatzen ditugu". Izagirreren hitzetan, "eremu honetan ematen da Udalerriko hazkunde naturala, eta guneak birsorkuntza integrala eskatzen du, hobekuntza hidraulikoa eta saneamendua egiteko jarduerak bizitegi-espazio berriak edo jarduera ekonomikoak sortzeko aukera emango baitute".

Egindako koordinazio-bileretan, bi administrazioek adierazi dute jarduera lehentasunezkoa dela, eta Eusko Jaurlaritzak Europako finantzaketa lortu nahi duten Next Generation proiektuen artean sartu du. Laguntza horrekin edo gabe, bi aldeek konpromiso irmoa hartu dute Ziakon jarduketa bikoitza egiteko.

Bata, uholdeei aurre egiteko, dagoeneko aktibatu dena, eta, bestea, **saneamenduari buruzkoa**. Horretarako, URAk erreka isurketak biltzeko proiektu berri bat lizitatuko du datozen asteetan. Ziako errekaen saneamendua hobetzeko obrak zehazteko proiektu horri esker, **gaur egun erreka isurtzen diren hiri- eta industria-isurketa guztiak jaso ahal izango dira, eta Oria Erdiko hodi biltzailearekin lotu**, Andoain parean.

2021eko otsailak 21